



Ilusioa

1

Begiratu Emoziotegiko 68-69. orrialdeetako irudiari. Gero, erantzun galderari.

● Zeri begira dago katua?

● Zure ustez, zer gertatzea espero du katuak?

2

Idatzi ilusioa eragiten dizuten hiru gauza.

● Zergatik eragiten dizute ilusioa? Zer ematen dizute?

3

Irakurri Emoziotegiko 68. orrialdean **ilusioari** buruzko testua, eta, gero, osatu esaldiak.

- Ilusioa _____ beteko delako itxaropena da.
- Ilusioak izatea da _____ eta gauzak gogotsu egiteko modu onenatariko bat.
- Guk jartzen diegu _____ gauzei.

4

Lotu hitz bakoitza bere esanahiarekin.

- itxaropena Beste batzuekin batera jaki bat osatzen duen gauza.
- energia Lortu nahi den zerbaitenganako bulkada.
- desira Nahi den hori gertatzeko konfiantza.
- osagaia Jarduera bat gauzatzeko ahalmena.

5

Lotu osagai bakoitza dagokion jakiarekin. Gero, idatzi beste osagai bat jaki bakoitzarentzat.

- arroza paella → _____
- arrautzak fabada → _____
- tomatea lasagna → _____
- odolkia gazpatxo → _____
- haragi xehatua marmitako → _____
- hegaluzea tortilla → _____

6 Esaldi ezagun batek hala dio: "Itxaropena ez da inoiz galdu behar". Zer uste duzu adierazi nahi duela?

7 Osatu esaldiak **ilusioaren** familiako hitzekin.

ilusioa > **ilusioa egin** **ilusioa izan** **ilusioa galdu**

- Mikelek _____ du beti mundua zeharkatzeko ideia horretan. Azkenean lortu du, eta datorren astean abiatuko da bidaia zoragarri batean.
- Saria zuri eman zizutela jakiteak _____ zidan, asko saiatu baitzara lan horretan.
- Txakurrak ihes egin zuenetik, Andonik mendira joateko _____ du; etxean egon besterik ez du nahi orain.

8 Zer da **ilusioaren** kontrakoa? Ordenatu hizkiak bi hitz lortzeko.

DAEOSIILUS → _____

NADGESINEUA → _____

9 Irakurri Eñautek behin etxean esan zuena.

Nire arreba Laidak zaldiz ibiltzen ikasteko ilusio handia du. Niri benetan ilusioa egingo lidakeena zaldia izatea litzateke.

Eñaut

- Uste duzu gauzatuko dela Laidaren ametsa? Zer egin behar du bete dadin?

- Eta Eñauten ametsa? Beteko da inoiz?

- Zer da etsigarriagoa, Eñautek duenaren gisako ametsak izatea edo Laidak duenaren gisakoak izatea? Zergatik?

- Sailkatu taula honetan ilusioa pizten dizuten zenbait gauza

Gauzatu daitezkeen ilusioak	Gauzatu ezin diren ilusioak

10

Begiratu berriz Emoziotegiko 68-69. orrialdeetako irudiari. Uste duzu gauzatuko direla katuaren ilusioak? Zergatik?

11

Eman ondoko egoera hauetan ilusioa pizteko hiru arrazoi.

● Amonaren urtebetetzea ospatzea.

● Beste auzo batera bizitzera joatea.

● Eskolakoekin txango bat egitea.
